

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

346 zb.
www.getxo.eus

>> 2020ko Ekaina



WANTED

Impulsa tu ideas
Bultzatu zure ideak

Nabarmen^{tzekoak}

- > Gazteria Zerbitzuak antolatutako hiriko udalekuak bertan behera utzi dira
- > Gazte lonjak berriro ireki daitezke
- > 35 pertsona Wanted tailerrean

EuskarAbenturaren 3. ekitaldia 2021era atzeratu da

EuskarAbentura Espedizioaren 3. edizioa ez da 2020an egingo eta 2021era atzeratzea erabaki dute antolatzaileek, osasuna erdigunean jarrita eta indarrean dauden neurriak eta aholkuak kontuan hartuta, egoerak ez duelako espedizioa aurrera ateratzea ahalbidetzen, eta egungo egoeran egitasmoaren helburuak lortzeko ezintasuna dagoelako. Behin betiko erabakiaren ondorioz, 2004an jaiotako gazteek aurkeztutako lanen emaitza gordeko da hurrengo ediziooko hautaketa prozesurako; elkarteak aztertuko du 2003an jaiotako gazteei eman beharreko erantzuna eta interesatuekin jarriko da harremanetan, eta 2021eko matrikulazioa 2004an eta 2005ean jaiotakoentzat izango da.

EuskarAbentura Elkarteak hautagaiek egindako esfortzua aitortu eta eskertu nahi du, kalitate handiko lan asko jaso baitira, eta aldi berean, aurtengo udan bere baloreak lantzeko alternatibak bilatzeko lan egiten ari da.

Udal webguneko Gazteriaren edukiak zabaldu egin dira

Konfinamenduak iraundu duen bitartean eta Gazte Bulego zerbitzua itxita egon den bitartean, udal webguneko Gazteriaren ataleko edukiak zabaldu eta osatu egin dira. Neurri horren helburua jendaurrean zabaldu ohi diren edukiak, neurri batean behintzat, zabaltzeko era bilatzea izan da.

Honen bidez Getxoko haur, nerabe eta gazteentzat interesgarriak diren informazio eta baliabideak ahalik eta era azkarren eta errazenean helaraztea saiatu da.

Web orri hau aldiro-aldiro elikatuko da garrantzitsutzat jotzen diren informazio eta baliabideekin, ahalik eta bilaketa espaziorik eraginkorra izan dadin. Gaur egun hurrengo informazioak eskaintzen ditu: Gazte Bulegoaren zerbitzuak, Getxoko agenda, formakuntza, gazteentzako laguntzak, Getxoko jarduerak, GazteTIC, teknologia berrien kudeaketarako informazio eta baliabideak, Wanted edo lonjak bezalako gazte-proiektuak, edo bolondres lana. Webgunearen atal horren helbidea betikoa da: www.getxo.eus/gazteria



Gazte Bulegoa, Algortan

BEKAK SARIAK

* **GAZTELAGUN programaren ezohiko laguntzak** Eusko Jaurlaritzak deituta, "egoera ekonomiko ahulean" dauden Gaztelaguneko onuradunentzat. 18 eta 35 urte bitarteko gazteen emantzipazioa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren plan berria da Gaztelagun, alokairu bat ordaintzeko diru-laguntza zuzenen bitartez. Entregatzeko epea: ekainaren 18ra arte. Informazio gehiago: <https://bit.ly/2YlBR14>

* **COVID-19gatik unibertsitario kalteberentzako Renta 4 Fundazioaren beka**, baldin eta haien egoera ekonomikoak ikasketekin lotutako gastuei aurre egitea eragozten badie. 2020-21 ikasturtean maila hauetan matrikulatuta dauden ikasleei zuzenduta daude: gradu eta masterreko titulu ofizialak lortzeko Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako unibertsitate-irakaskuntzak; titulu ofizialak lortzeko unibertsitate-irakaskuntzak; master-titulua lortzeko edo lortzeko prestakuntza-osagarriak, eta gradu-titulua lortzeko edo lizentziatura-ikasketa ofizialak jarraitzeko kreditu osagarriak. Beka jasoko duen ikasle bakoitzak 5.000€ arte jasoko ditu ikasturteko matrikula ordaintzeko, ikastetxe publikoetan zein pribatuetan. Era berean, ikasketetarako beharrezkoak diren errenta eta ostatu baterako ere erabili ahal izango da. Izena emateko epea: ekainaren 15etik irailaren 15era. Oinarriak: https://www.r4.com/resources/pdf/plan_becas_estudios_ok.pdf

* **"Master Glass Vidrala Design Contest" beirazko ontzien diseinu-lehiaketa**, Vidralak deituta, Diseinu Industrial edo Grafikoarekin, Ingeniaritzekin edo Arte Grafikoekin lotutako ikasketa ofizialak egiten dituzten ikasleentzat. Banaka edo taldeka lehiatu ahal izango da (gehenez hiru kide), eta saria 2021eko apirilean talde irabazleak eta bere tutoreak Milanera bidaiara egitea da, Altzarien Nazioarteko Aretora joateko. Oinarriak: <https://bit.ly/2ZMM96F>

Gazteria Zerbitzuak antolatutako hiriko udalekuak bertan behera utzi dira

Gazteria Zerbitzuak uztailean 5 eta 12 urte bitarteko umeentzat antolatu ohi dituen hiriko udalekuak bertan behera uzteko erabakia hartu du Udalak. Ziurgabetasuna nagusi den honetan, erabakia hartzeko garaian, udalekuak langileentzat, haurrentzat eta familientzat era seguru batean egitea eragozten duten faktore guztiak aintzat hartu dira.

Hiru Aldundiek urtero antolatzen dituzten udalekuak bertan behera utzi ondoren, eta EUDELeK hiriko udalekuak bertan behera uzteko gomendioa egin duenetik udaleku ugari bertan behera geratu dira aurtengo udan.



Gazte lonjak berriro ireki daitezke

Deseskaladaren 2. fasean sartzearekin batera, egun esparru pribatuetan, gehenez 15 lagun biltzeko aukera dago, baldin eta pertsonen artean 2 metroko distantzia gorde badaiteke.


Horrek esan nahi du, besteak beste, Getxon dauden berrogeita hamarren bat lonja berriz ere ireki ahal izango direla, jarduera abian jartzeko. Gazteria Zerbitzuak jardueraren hasierari erantzukizunez ekiteko lan egingo du. Horregatik, norberaren babeserako materiala (maskarak eta gel hidroalkoholikoa) eta garbitasun neurriak jasotzen dituen gida txiki bat banatuko dira. Materiala eta gidatxoa eskuratzeko lonja bakoitzeko ordezkari bat Gazte Informazio Bulegotik pasatu da (Tangora etxea. Algortako etorb. 98) ekainaren 3an eta 4an, 10:30etik 13:00etara bitartean.

Gazte-lonjak programako arduradunek beti egin dute lan lonjen erabiltzaileek ahalik eta portaera arduratsuen



izan dezaten, espazio horien erabilerari dagokionez. Honek, nola ez, auzokideekiko gutxienezko bizikidetzara arauak errespetatzea esan nahi du, besteak beste. Egoera berezi honetan, are garrantzitsuagoa da arduraz

jokatzeko eskaera. Argibideetarako izateko edo oraindik materiala jaso ez duenak materiala eskatzeko harremanetan jarri behar da programarekin: gaztelonjak@getxo.eus eta 638 322 065.



35 pertsona Wanted tailerren

Alarma egoerak eta koronabirusak eragindako egoeraren ondorioz, Wanted programaren barruan egiten den tailerra oraingoan telematikoki egin behar izan da, aurrez aurre egin beharrean. 35 gazte parte hartu zuten (maiatzaren 23an eta 30ean egin ziren saioetan), eta horiek kulturaren, zerbitzu juridikoen, argazkilaritzaren, zinemaren, artearen, kirolaren, musikaren, irratien eta irakaskuntzaren arloekin lotutako 13 proiektu aurkeztu zituzten. Tailerraren hurrengo helburu nagusiak bete ziren:

parte-hartzaile guztiek gainerako proiektuak ezagutzea, haien artean elkar ezagutzea, eta proiektu guztiek ekarpenak jasotzea, bai gainerako parte-hartzaileen aldetik, bai sektore bakoitzeko profesionalen aldetik. Wanted ekimenak 18 eta 30 urte bitarteko gazteen proiektuak babesten ditu, finantziario, aholkularitza tekniko, orientazio eta abarren faltagatik errealitate bihurtzeko zailtasunak dituztenak, Gazteria eta Ekonomi Sustapen arloek bultzatuta.